


LA BE AN

BERRIKUNTZA
SOZIALA SORTZEN
EUSKADIKO LANDA
INGURUNEAN



LABEAN
LANDA EREMUAN BERRIKUNTZA SOZIALA PIZTEN
GENERANDO INNOVACIÓN SOCIAL EN EL MEDIO RURAL

AURKIBIDEA

- Aurrekariak eta testuingurua
- Ekintzak
 - Labean merkaturatzea
 - Ekintzailtza Sozialeko jardunaldiak
 - OPEN SPACE topaketak
 - Prestakuntza teknikoa
 - Labean Sariak: Ekintzailtza eta berrikuntza sozialeko proiektuen lehiaketa
 - Labean espazioak
 - HOST-aren irudia
 - Eskualdeko sareak aktibatzea eta dinamizatzea
 - Berrikuntza Sozialaren kultura zabaltzea
 - Proiektu pilotuaren ikaskuntza nagusiak

AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

Euskadiko landa-eremuen erronka nagusien artean daude jarduera ekonomikoa sortzea eta dibertsifikatzea bultzatzea, enplegua sortzea eta kalitatezko zerbitzu eta azpiegituren eskaintza sendotzea, pertsoneri aukera berberak bermatzeko landa-inguruneetan zein hiri-inguruneetan. Erakunde eta entitate publiko eta pribatuak partekatutako helburuak dira.

2015-2020 aldirako Eskualdeko Landa Garapenerako Programek (LGP) erronka horiek txertatu eta aurre egiten diete, urteko kudeaketa-planen bidez. Eusko Jaurlaritzak, Elikaduraren eta Egurraren Balio-Kateko Ekintzailatza Estrategiarekin, Euskadiko elikaduraren balio-katea ekonomikoki eta sozialki eraldatzeko konpromisoa agertu du. HAZIk, LGEekin (Landa garapen elkarteekin) lankidetzan estuan, ekintzailatza eta enpresen dibertsifikazioa bultzatzen ditu hainbat programari esker (Gaztenek,

GEROA, Landa Eremuko Ostegun Ekintzailak, Ekintzaile Onekin Startups, Mugagabe...).

Landa-eremuetako ekintzailatzaren ekosisteman, erakunde publikoek ere zeregin garrantzitsua dute, batez ere udalek, eta ekintzaileei eta enpresei beren jarduera garatzeko behar duten euskarri fisiko ematen diete. Hau da, ekiteko espazioak gaitu eta dinamizatzea, azpiegitura eta ekipamenduen bidez, hala nola, enpresetako hazitokiak, industrialdeak, industria-lurzorua, etab.



Testuinguru horretan, LABEAN: BERRIKUNTZA SOZIALA SORTZEN EUSKADIKO LANDA INGURUNEAN proiektu pilotua jarri zen abian, "EUSKADIKO LANDA INGURUNEAN EKINTZAILETZA ETA BERRIKUNTZA SOZIALEKO EKOSISTEMA SORTZEA" ekimenarekin 2018an garatutako hurbilketa teorikoko lana zehazten jarraitzeko eta aurrera egiteko bide gisa.




Aurrera egiten jarraitzeko, lan egiteko modu berri bat planteatzen da, ekintzailtza eta negozio-ideiak landa-eremuetako konpondu gabeko beharrek lotzea helburu duena. Horrela, proiektu bakoitzari, izaera ekonomikoaz gain, biztanleria finkatzen eta landa-inguruneak mantentzen lagunduko duen alderdi sozial bat ematen zaio.

ZER DA LABEAN?

LABEAN:
“BERRIKUNTZA
SOZIALA SORTZEN
EUSKADIKO LANDA
INGURUNEAN”

Euskadiko landa-eremu behartsuenen garapen sozioekonomikorako berrikuntza sozialean oinarritutako proiektu pilotu estrategikoa da.


2019-2022 aldian proiektua hedatzeko eremuak Euskadiko landa-eremu ahulenak hartu ditu: Añana, Arabako Mendialdea eta Enkarterri.





LABEAN PROGRAMAN
APLIKATUTAKO BERRIKUNTZA
SOZIALAREN KONTZEPTUAK
AIPATZEN DU "PERTSONEK PARTE
HARTZEKO LANKIDETZA-PROZESUAK,
KONPONBIDEAK ELKARREKIN
SORTUZ GIZARTE-EGOERAK
ERALDATZEKO EDO HOBETZEKO,
AURREZ ESPERIMENTATU
GABEKO ZEHARKAKO IKUSPEGI
BATEN BIDEZ ETA HERRITARREN
ONARPENA LORTUZ. IKASKUNTZA,
KONPROMISOA, ERALDAKETA"
(INNOBASQUE).

ZERTARAKO?




LABEAN proiektu pilotua 2019an martxan jartzeak ekintzailtzaren ekosistema eta landa-eremuetan jarduera ekonomiko iraunkorra sortzea osatzen eta indartzen ditu, alde publikoarekin lan eginez eta inplikaturako eragile guztien arteko koordinazioa eta lankidetzaz txertatuz, berrikuntza sozialaren ikuspegitik.

NOREKIN?

LABEAN Eusko Jaurlaritzak bultzatu du, HAZIren bitartez eta Añana, Arabako Mendialdea (Araba) eta Enkarterri (Bizkaia) eskualdeetako Landa Garapeneko Elkarten laguntzarekin.

Hainbat eskualdetan diharduten eragile publiko eta pribatu ugari parte hartu dute proiektuan, baita berrikuntza sozialean oinarritutako metodologietan espezializatutako laguntza teknikoko erakundeek ere.



NOLA?

Herritarrak inplikatu nahi dira abangoardiako lan-tresnak erabiliz, ekimenak eta pertsonak eragin, lagundu, dinamizatu eta konektatzeko, sareko lan-eredu berri bat eraikitzen lagunduz. Horren helburua da erakunde publikoek, ekintzaileek, enpresek, elkarteek eta, oro har, gizarte zibilak espazio eta helburu komunak partekatzea, lurraldea eraldatzen eta landa-inguruneko komunitateen bizikaltatea hobetzen lagunduko duten lan- eta harreman-dinamika berriak sortzeko.

Horrela, bada, berrikuntza sozialaren printzipioak aplikatu dira, konpondu beharreko premiei irtenbideak bilatzeko eta eskualdeetan bertan dauden aukerak azaleratzeko eta baliatzeko aukera emango duten ekintzak planteatzeko:

- *Negozio-eredu berriak sortuz.*
- *Sortutako enpresen iraunkortasuna bermatuz.*
- *Tokiko baliabideak balioztatuz.*
- *Tokiko erakundeak lurraldearen dinamizazioan eta kohesioan kokatuz.*
- *Lankidetzak publiko-pribatua, publiko-publikoa eta pribatu-pribatua sustatuz.*
- *Komunitatea sortuz eta kide izatearen sentimendua indartuz.*
- *Balioa sortuz, emaitzetan eta pertsonen arteko elkarreraginean oinarrituta, ezagutza trukatzuz eta sortuz.*
- *Garapenaren iraunkortasuna zainduz.*
- *Gobernantza-modu berriak eraikiz.*

**EKIN
TZAK**

LABEAN MERKATURATZEA



LABEAN 2019an abiarazi zen. Horretarako, Eragileen Mapa bat identifikatu zen, eta prospekzio teknikoko ekintza batzuk egin ziren, proiektua ezarri zen lurraldeetako eragile giltzarri horien ordezkarien artean Berrikuntza Soziala terminoa gizarteratzea errazteko, bai eta proiektua inplikatutako eskualdeetan aurkezteko saioak ere.



● PROSPEKZIO-BIDAIA TEKNIKOAK

Abiarazte-ekintzen barruan, bisita tekniko batzuk egiten dira inguruko lurraldeetako ekintzaitzako eta berrikuntza sozialeko beste esperientzia batzuetara. Proiektuan parte hartzen duten erakundeetako (HAZI, LGEak, udalak) arduradun tekniko eta politikoen parte-hartzeari esker, zuzenean ezagutu daitezke abian dauden esperientzia oso motibatzaileak eta inspirazio-iturri direnak.



● ESKUALDEEN EZAGUTZA

Eskualde bakoitzeko ERAGILEEN MAPA egiteko lanen barruan, gizarte- eta erakunde-sarea bisitatzen da, proiektuaren ardura duten talde teknikoek berrikuntza sozialeko ekosistemak ezarriko diren komunitateak identifika ditzaten.



● PROIEKTUA JENDAURREAN AURKEZTEA

LABEAN proiektua gizarteratzeko eta aurreikusitako ekintzei hasiera emateko, aurkezpen-saioak egiten dira (eskualde bakoitzeko bat), eta guztira 50 pertsonak parte hartzen dute, beste hainbeste erakunde publiko eta pribatu ordezkatzuz: udalak, administrazio-batzarrak, foru-aldundiak, mankomunitateak, elkarteak, etab.

Horren bidez, lurraldeko eragile giltzarri guztiak inplikatu nahi dira, LABEANek datozen urteetan abian jarriko dituen ekimenetan parte har dezaten.

EKINTZAIETZA SOZIALEKO JARDUNALDIAK

Ekintzailletza Sozialeko ekimen bat da gizarte-, kultura- edo ingurumen-erronkei irtenbide berritzaileak ematen dizkien enpresa-jarduera bat proposatzen duena, komunitate edo sistema sozioekonomikoen mailan aldaketarako ideiak eskainiz.

Gizarte-enpresa da, gizarte-eragina izatea helburu nagusia duen enpresa bat, jabeentzat edo bazkideentzat onurak sortzea baino gehiago. Merkatuan funtzionatzen du, ondasunak eta zerbitzuak modu enpresarial eta berritzailean emanez, eta soberakinak batez ere helburu sozialetarako erabiltzen ditu. Kudeaketa arduratsu eta gardenaren mende dago, zehazki, bere langileen, bezeroen eta bere jarduera ekonomikoan parte hartzen duten interesdunen elkarrearen bitartez.

Ekintzailletza Sozialeko ekimenekin erakunde pribatuak prestatu eta harremanetan jartzeko, ekintzailletza sozialeko hiru jardunaldi egin dira, LABEAN proiektua ezarri den eskualde bakoitzean bana.

Esperientzien ezagutza erraztu nahi da, lehen pertsonan; horrela, mezua zuzenago iristen da eta parte hartzen duten pertsona guztiak aberasten ditu. Jardunaldi hauen leloa hauxe izan da: "Nola eman balio soziala nire ekintzailletzari?".

Mahai-inguruaren formatuak aukera eman du beren planteamenduetan eta garapenean nolabaiteko arrakasta izan duten berrikuntzako eta ekintzailtza sozialeko lan-adibideak eta -metodologiak ezagutzeko eta trukatzeko, gutxi gorabehera finkatuta dauden ekintzailtza-ekimen pribatuen ordezkari diren hizlarien eta bertaratutakoen artean.

Guztira 47 PERTSONAK hartu dute parte, eta beste lurralde batzuetan ezarritako 29 EKIMEN LOKAL eta EKINTZAILTZA SOZIALAREN 3 ADIBIDE ezagutu ahal izan dira.

Bertaratuek oso positibotzat jo dituzte jardunaldiak, eta loturak sortu dira ekintzaileen artean, komunikazioa, ideien trukea hobetzeko eta ekintzailtza sozialeko proiektuak aberasteko.



OPEN SPACE TOPAKETAK

Open Space metodologia irekia da, eta aukera ematen du jende multzo handi batengandik ahalik eta ideiarik onenak lortzeko gai handi bati buruz. Ezaugarri nagusia da ez duela hasierako agendarik zehaztuta, baizik eta parte hartzen duen taldeak osatzen duela. Parte hartzeko saio formatu honek komunikazioa eta eztabaida sustatzea du helburu, eta edozein parte-hartzaile galderak egiteko edo galderak jasotzeko eroso sentitzea lortzen du.

LABEAN inplementatzen den eskualdeetako hiru komunitateekin lan egiteko, 3 OPEN SPACE topaketa egin ziren, horietako bakoitzean bana. Bertaratzeko eta parte hartzeko pertsonen erantzun ona nabarmendu daiteke. Metodologia ireki hori positiboa eta motibagarria izan da, eta eskualdeen kezkak antzematea ahalbidetu du, bestela identifikatzea zaila izango litzatekeelako.

Askotariko profilak dituzten 123 pertsonak hartu dute parte topaketa horietan eta 37 mahai tematikotan lan egitea lortu dute. Mahai horietan erronkak eta irtenbideak azaltzen ziren eskualde-komunitate horiek osatzen dituzten pertsonak kezkatzen dituzten hainbat gairi dagokienez.

Topaketa horien emaitzak oinarri izan dira LABEAN proiektuan zehar ekintzak egiteko, eta, hala, partaidetza-mahai horietan hautemandako arazoei erantzun parte-hartzaileak emango dizkieten konponbideak elkarrekin sortzeko prozesuak abiarazi ahal izan dira.




PRESTAKUNTZA TEKNIKOA

LABEAN proiektuaren lehen faseetan, gizarte-ekonomiaren, ekintzailtzaren, berrikuntza sozialaren eta hirugarren sektorearen ezagutzatik eta esperientziatik diseinatutako prestakuntza-programa bat eman da, gizarte-aldaketen liderrei laguntzeko helburuarekin.

Trebakuntza-ekintza horiek Euskadiko Landa Garapeneko Elkartetako eta HAZIko teknikarientzat izan dira.

Prestakuntza-programak gakoak eman ditu ekintzailtza sozialeko ekosistemak sortzeko eta kudeatzeko, bai eta enpresen eta proiektuen kudeaketa hobetzeko, gaitasunak garatzeko, lantaldeak sortzeko eta proiektu sendoagoak kudeatzeko, ikaskuntza azkarragoa eginez eta akatsak eraginkortasunez konponduz.

Prestakuntza gaian adituak diren pertsonak eman dute, beren proiektuetan arrakasta izan duten ekintzailtza sozialek eta El Hueco taldeko teknikariek lagunduta.



Prestakuntza programaren edukiak gai hauei buruzkoak izan dira:

- *Finantzaketa alternatiboa. Azelerazioa behar duten proiektuak eta ekintzaitzak finantzatzeko gakoak. Ohiko laguntzez bestelako finantzaketa-iturriak azpimarratuz.*
- *Ekintzaitza Sozialak finantzatzeko tresnak.*
 - *Crowdfunding sistemak, bussines angels, etab.*
 - *Erakundeen finantzaketa.*
 - *Inbertsio-errondak.*
- *Proiektuaren bizi-zikloaren hainbat fasetan finantzatzea.*
- *Itzulera ekonomikoa eta soziala, ROI eta SRO.*
- *Gizarte-eragina neurtzea.*
Berrikuntza soziala, ekintzaitza soziala eta lankidetzak-sareak. Esparru globaletik tokikora, ekintzaitzako eta berrikuntza sozialeko proposamenak identifikatzeko beharrezko ezagutzak garatuz.
- *Gizarte berritzailea eta berrikuntza soziala.*

LABEAN SARIAK

EKINTZAILETZA ETA BERRIKUNTZA SOZIALEKO PROIEKTUEN LEHIAKETA

Ekintza honen bidez, honako hauek egin ditzaketen **EKIMEN BERRITZAILEEN DISEINUA** eta inplementazioa sustatu nahi izan da:

- Gizartean *eragin* positiboa duten ideia eta enpresa sortzaileak, berritzaileak eta sortzaileak aintzatesten, ikusarazten eta sustatzen laguntzea, eta Euskadiko landa-ingurunekeo beharrei erantzuteko eredu izatea.
- Landa-ingurunean berrikuntza eta ekintzailletza sozial iraunkorra *sustatzea* eta bultzatzea.
- Berrikuntza sozialeko eta ekintzailletza sozialeko *proiektuak sortzea*, hazteko, enplegua sortzeko, aberastasuna sortzeko eta jarduera ekonomikoa hobetzeko potentzialarekin.
- Gizarteari *ezagutzera ematea* berrikuntzak eta ekintzailletza sozialak enpresa-, ekonomia- eta gizarte-eredu errentagarri gisa duten garrantzia.
- Ingurumena eta garapen iraunkorra errespetatuko duten ekonomietan oinarritutako enpresa eta startup berriak sortzeko beharra *agerian jartzea*.



Lehiaketak **HIRU KATEGORIA** izan ditu .

1.

Ekintzailletza edota berrikuntza sozialeko proiekturik onena Euskadiko landa-eremuetan, erakunde pribatuek sustatuta.

2.

Ekintzailletza edota berrikuntza sozialeko proiekturik onena Euskadiko landa-eremuetan, erakunde publikoak sustatuta.

3.

Euskadiko landa-eremuetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duen ekintzailletza eta/edo berrikuntza sozialeko sari berezia.

Guztira, **12 EKIMENEK HARTU DUTE PARTE LEHIAKETAN**, eta hauek izan dira saritutako proiektuak hautatzeko kontuan hartu diren **IRIZPIDEAK**:

Ideiak sortutako *balio* soziala. Lurraldearen berariazko gizarte-erronken konponbideak baloratuz.

Negozio-ereduaren *eskalagarritasun- eta erreplika-gaitasuna* Euskadin. Irizpide kuantitatiboak eta kualitatiboak kontuan hartuta. Eskalagarritasunaren nazioarteko izaera positiboki baloratuz.

Generoaren eta ingurumenaren ikuspegiak zeharka sartzea. Ekintzailletza berdeak eta/edo ekonomia zirkularrekoak positiboki baloratuz.

Gizarte-eraginaren neurketa jaso eta erantzun nahi dituen erronken konponketa-mailari buruzko emaitza kuantifikatuak eman.

Negozio-ideia sareko elkarlanari buruzko *kontzientzia soziala areagotzera* bideratuta egotea.

Emakumeen eta gizonen arteko *berdintasuna* sustatzen duten irizpideak.



Hautatutako proiektuentzako **SARIAK** honako hauek izan dira:

INKUBAZIO-PROZESU batean proiektua abian jartzen eta/edo finkatzen laguntzea. Kontua da ibilbide-orri bat egitea, taldeek beren proiektuen garapenean aurrera egin ahal izan dezaten, eta jarduerak autonomiaz inplementatu ahal izan ditzaten.

HELBURUAK

- Proiektuen aurrerapena inkubazio-programaren helburuekin *lerrokatuta mantentzea*.
- Ekintzaileei beren proiektuaren *garapen-maila identifikatzen laguntzea* eta epe labur eta ertainean etorkizuneko aurrerapenei ekiteko ibilbide-orria definitzea.
- *Kontsultarako euskarri izatea* negozio- eta enpresa-estrategiari, zerbitzu-produktuaren garapenari, negozio-ereduaren diseinuari, eskalagarritasunari, merkaturatzeari, egitura ekonomiko finantzarioari eta abarri buruzko alderdietan.

Mentoring-zerbitzu hau **5 NEGOZIO-PROIEKTUREKIN** landu da, heldutasun-fase desberdinetan, 3 hilabeteko iraupenarekin eta talde bakoitzeko banakako mentoretzekin:

Añana eskualdeko proiektu pribatu onenaren saria:

KUDEA>GO! MUGIKORTASUN PARTEKATUKO PLATAFORMA.

Añana eskualdeko proiektu publiko onenaren saria:

LA SIERRA ENERGIA KOMUNITATEA.

Enkarterri eskualdeko proiektu publiko onenaren saria:

ZALLAKO KULTUR TOPAGUNEA.

Arabako Mendialdeko eskualdeko proiektu pribatu onenaren saria:

POBLARTE – THUSIA.

Arabako Mendialdeko eskualdeko proiektu publiko onenaren saria:

ARRAIA-MAEZTUKO COWORKING-A.

Ekintzailtzako eta/edo berrikuntza sozialeko SARI BEREZIA, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bereziki sustatzen duen proiektuarentzat.

ARRAIA-MAEZTUKO COWORKING-A.




LABEAN ESPAZIOAK

Berrikuntza sozialak gizartean eragina izango duen eta zerbitzu berritzaileak garatuko dituen errealitatea izan dadin, beharrezkoa da haren inguruan ekosistema bat sortzea, komunitatea prestatu eta elkarrekin konektatzeko aukera emango diona.

LABEAN guneak komunitateak bere lurraldeen beharrei erantzuteko leku gisa pentsatu dira, jasangarritasunaren printzipioan oinarritutako berrikuntza soziala sustatzen duten trukeen bidez, ingurumenaren berdintasunaren, inklusioaren eta zaintzaren balioen pean.

Gune horietan etengabeko berrikuntza bermatu nahi da, non herritarren parte-hartzea komunitatearen sorkuntza-prozesuaren protagonista izateko, eta ezagutzaren trukea, diziplina aniztasuna, eta ekosistemaren hazkundea sustatzen duten aholkularitza-, kontseilatu- eta prestakuntza-zerbitzuak bultzatzen diren.

Horretarako, ekintzailtzako eta berrikuntza sozialeko jarduerak garatzeko erreferentziatzeko espazio fisiko gisa abian jartzea erraztu da, bai eta LABEAN komunitateak garatzea ahalbidetuko duen sareko lana bultzatzea ere.



Gune horiek egokitzeko, kudeatzeko eta dinamizatzeko ekintzen arreta honako hauetara bideratu da:

- Komunitateak eta lantaldeak elkartzeko *egokitutako guneak* izatea.
- Gune horiek *erreferentziatzeko* espazio bihurtzea komunitate eta lantaldeentzat.
- *Eskualdeari LABEAN espazioek eskaintzen dituzten aukerak* ezagutaraztea.

HOST-AREN IRUDIA



LABEAN HOST-a berrikuntza sozialaren printzipioetan eta balioetan oinarritutako ekintzen sustapena bermatzeko eginkizuna duen koordinazio-egitura gisa planteatzen da. Labean espazioen inguruan ezarritako gizarte-, lan- eta kultura-komunitatea da ekintza-eremua, eta haren irismena eskualde-eremura zabaltzeko asmoa du.

HOST-a funtsezko elementua da eskualde bakoitzean ekintzailtzako eta berrikuntza sozialeko komunitateak dinamizatzeko, eta horrela ezarri eta finkatu da eskualde-eragileen mapetan identifikatutako pertsonen arteko partaidetza-prozesuen bidez.

Horretarako, hosting edo anfitrioiak izateko ereduak gaitzeko lan egin da, eskualde bakoitzean ad-hoc ereduak diseinatu, eredu horiek ezartzeko. Gainera, parte hartu duten hiru eskualdeen arteko topaketa batean diseinatutako eredu berriak partekatu dira.

HOST ezberdinak diseinatzeko prozesuen ondorioz, erakunde publikoetako (udalak, landa-garapeneko elkarteak) zein pribatuetako (enpresak, ekintzaileak, ikastetxeak, etab.) 12 pertsonak hartu dituzte beren gain figura berritzaile horiek lurraldean egiten duten lanarekin jarraitzeko konpromisoak.

HOST Labean taldeak datozen urteetan jarraituko du lanean, diseinatutako eta adostutako ibilbide-orrietan oinarrituta. Hauek dira, oro har:

- HOST-aren figura *sozializatzea* eskualde-mailan eta berrikuntza sozialaren kultura zabaltzea.
- HOST-a osatzen duten *eragileak handitzea*, eraturako komunitatearen inguruan sor daitezkeen funtsezko figura berriak txertatuz.
- Landa-komunitateen aurrerapen soziokulturalean eragina izan dezaketen *berrikuntza sozialean oinarritutako proiektuak* eta ekimenak babestea eta dinamizatzea.

ESKUALDEKO SAREAK AKTIBATZEA ETA DINAMIZATZEA

LABEAN proiektuaren konpromisoetako bat eskualdeetan sareko lana sustatzeko, ezartzeko eta finkatzeko ingurune egokia sustatzea izan da, herritarrek baterako sorkuntzako eta prototipoko prozesuetan parte har dezaten bultzatuz eta lagunduz. Parte-hartzea LABEAN komunitateak sendotzeko zutabeetako bat da, proiektua garatzen den landa-eremuen garapen sozioekonomikoa bultzatzeko bide gisa.

Guztira, 8 sorkuntza-prozesu jarri dira abian, eta Añanako, Enkarterriko eta Arabako Mendialdeko eskualdeetako 88 PERTSONAK hartu dute parte prozesu horietan, komunitate aktiboak eta konprometituak sortzeko. Horretarako, eragileek eta biztanleek parte hartu dute beren landa-inguruneen garapen sozioekonomikoaren aldeko lan-sareetan. Probatzeko ad hoc konponbideen diseinua errazten saiatu gara, eskualde bakoitzeko Open Space topaketetan identifikatutako erronkei erantzunez.

AÑANAKO PROTOTIPOAK

● INGURUMENAREKIKO SENTSIBILIZAZIOA

Prototipoaren helburua landa-inguruneetan energia-komunitateak ezartzearen inguruko ingurumen-sentsibilizazioa lantzea izan da. Hiru pertsonako talde batek "kontzientziazioko oinarrizko kit bat" diseinatu zuen sentsibilizazio-lanerako.



● ENERGIA- KOMUNITATEAK

Prototipoaren helburua landa-inguruneko energia-komunitatearen ereduak eta autokontsumorako eta soberakinak saltzeko energia sortzeko irtenbideak elkarrekin bilatzea izan da. Energia-komunitate berriak sortzeko prototipo hau garatu duten 4 pertsonak parte hartu dute.



**ENERGI
ERKIDEGOAK**

Sostenibilidad Ambiental
Desarrollo de modelos de comunidad energética rural en Añana.

**Potenciar las Comunidades
Energéticas**


Una nueva herramienta que ubicará a buen seguro a los Concejos Alaveses en el siglo XXI

The slide features a white background with blue and red text. To the right, there is a vertical stack of seven small video call windows showing different participants. A decorative white wireframe wave graphic is positioned between the text and the video windows.

● AÑANAKO ZENTRO KOMUNITARIO ADIMENDUNA

Prozesu honetan identifikatu den helburua INFORMAZIOAREN GIZARTEA garatzen laguntzea izan da Añanaren landa-eremuan IKTen bitartez. Teknologia digitalak herritarren bizitzan modu barneratzaileago batean txertatzea da helburua, teknologia elementu integratzailea izan dadin, eten digitala murrizteaz gain, gizarte-arrakalak estutzeko.

Guztira 18 pertsonak hartu dute parte, eta eskualdeko eraldaketa digitalean lagunduko duen Zentro Komunitario Adimenduna diseinatzeko erronkari heldu zaio herritarrek IKTen bitartez ahalduzko, komunitateen garapenerako eta aurrerabiderako bitarteko izan daitezzen.



Año 1	Año 2			
-------	-------	--	--	--

Estrategia para la puesta en marcha del CCI AÑANA

● "HITZ EGIN BEHAR DUGU-TENEMOS QUE HABLAR" PROGRAMA GAZTEAK AKTIBATZEKO

Proposamenaren helburu nagusia gazteek beren komunitatean parte har dezaten bultzatzea zen, eta bizi diren landa-lurraldearen inguruan dituzten kezkak, motibazioak eta itxaropenak identifikatzea. Osagarri gisa, haien eta erakunde publikoen arteko komunikazio-bideak sortu nahi ziren, distantziak murrizteko eta lankidetzeta-loturak sortzeko. Aldi berean, espazio bat ireki nahi izan zen, proposamenak jasotzeko eta gauzatze posibleak ikertzeko.

2022ko udan esku-hartu dute guztira 14 eta 30 urte bitarteko 29 pertsonak, bi udalerrietakoak: Gaubea eta Erriberagoitia. Esperientzia hori metodologikoki eta emaitzen aurkezpenean Berantevillako udalerrian garatu den antzeko proiektu batekin lotu zen.

Ekimenak biztanleriaren sektore horren hainbat interes ezagutzera eman ditu, eta agerian utzi du erakundeek ibilbide luzeagoko estrategia bat definitu behar dutela, eskualdeari lotutako gazte gehiago inplikatu dituen. Beste erkidego batzuetan erreplika zitekeen proposamen bat lortu zen, beste testuinguru batzuetara molda zitekeena, eta erakundeen eta gazteen arteko komunikazio-kanal alternatiboak ezarri ahal izan dira. Ildo horretan, konfiantza sortzeko lan egiteko beharra antzeman da, denboran hurbilago eta luzarago tratatuz.




ARABAKO MENDIALDEKO PROTOTIPOAK

● MENDIMEDIA: INFORMAZIO DINAMIZATUA

Prozesu hori eskualdean sortzen den informazioa dinamizatzeko lan-metodologia bat diseinatzen saiatu da, helburuko publikoarengana arin eta azkar irits dadin.

Prototipo honen diseinuan, diziplina anitzekoa izateagatik nabarmendu zen lantalde batek parte hartu zuen. Guztira, komunikazioaren arloan lan egiten duten eskualdeko erakunde publiko eta pribatuetakoa 6 ordezkari osatu zuten lantalde hori.

Prototipo-saioetan honako lan-eskema hau sortu zen:




● LEHIAMENDI PERTSONA EKINTZAILEEN SAREA

Arabako Mendialdeko eskualdean ekintzaitza-proiektuak eta -ekimenak abian jartzeko beharrei erantzunak eta konponbideak elkarrekin bilatzea da prozesu honen helburua. Ekimen honetan, nabarmentzekoa da parte-hartzaileek sarean lan egin nahi dutela baliozko edukiak sortzeko eta topaketa eta ekitaldi tematikoak antolatzeko, komunitateko gainerako kideekin partekatzen.

Lehiamendik Arabako Mendialdeari lotutako 12 pertsonaz osatutako talde eragile bat du dagoeneko, hainbat profilekoa: proiektu-hastapenetan, enpresa-ibilbide zabala duten pertsona ekintzaileak, artistak eta sortzaileak, bai eta tokiko erakundeak edo administrazioak ordezkatzan dituzten pertsonak ere, hala nola LGEa.

Talde eragile horrek sarearen barne-kudeaketa ezarri lan egin du, sarea bera buru duten eskualdeko ekitaldiak antolatuz, beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin lankidetzan, eta etorkizunean proiektuarekin jarraitzea ahalbidetuko duen ibilbide-orri bat landuz. Era berean, Lehiamendi eredu beste eskualde batzuekin partekatu da, landa-ingurune erakundeen eta pertsona ekintzaileen arteko antzeko lankidetzaren osatzeko interesa dutenekin.




ENKARTERRIKO PROTOTIPOAK

● MUGIKORTASUN IRAUNKORREKO LABORATEGIA

Udalerrien arteko, pertsonen arteko eta jarduera ekonomikoen arteko konektibitatea hobetzeko proposamenak elkarrekin bilatzea da helburua, eskualdeen arteko kohesioa eta jarduera ekonomiko iraunkorraren sorrera bultzatzeko.

Guztira 8 pertsonak egin dute lan prototipoetan, eta hausnarketa- eta analisi-prozesu bat egin da 16 eta 18 urte bitarteko gazteen familiekin, bi udalerritan, mugikortasunari dagokionez duten egoera ezagutzeko.

Eskualde mailako erakundeetako eragileen arteko lan parte-hartzaile eta koordinatuaren bidez, haien egunerokoa hobetu da, bigarren hezkuntzako ikasleentzako garraioaren finantzaketa partekatua ahalbidetu baita.




● SILVER ECONOMY ENKARTERRIN

Prozesuak Enkarterriko egoera ikertu du, zahartze aktiboari eta Silver economy-ari dagokienez, eskualdearentzat aukera-guneak egon daitezkeela susmatuz.

Helburua da esparru horretan sor daitezkeen aukerei forma ematen saiatzea eta sor litezkeen aukerak ikustea. Horretarako, hausnarketa- eta partaidetza-saio batzuk egin dira, eskualdeko 8 eragilerekin, hainbat eremutakoak.

Emaitzak proposatzen ditu etorkizunerako hainbat ekintza, proiektuaren lidergoa ezartzea eta eskualde-mailako baliozkotze-prozesu bat.

¿CUALES SON LAS FASES DEL PROCESO COMPLETO ?



BERRIKUNTZA SOZIALAREN KULTURA ZABALTZEA

Jarduera horretan, toki-erakundeetako lantalde teknikoak eta korporazioak transmititu eta sentsibilizatu dira, berrikuntza sozialaren balioei eta lurraldeetan sortzen dituen aukerei buruz. Horretarako, "Berrikuntza sozialari buruzko asteazkenak" programa abiarazi da. Hiru jardunaldi horietan, lehen eskutik jaso ahal izan dira beste komunitate batzuetako adibideak eta jardunbide egokiak.

Programa hau Euskadiko landa-eremuko toki-erakundeetako arduradunei zuzenduta egon da (alkateei, zinegotziei eta administrazio-batzarretako ordezkariak, bai eta LGEetako, HAZIko eta Mendinet Tokiko Ekintza Taldeko teknikariak ere).

Hiru jardunaldi antolatu dira online, eta horiei esker, lehen pertsonan eta protagonisten eskutik, beste erkidego eta herrialde batzuetako adibideak eta jardunbide egokiak ezagutu ahal izan dira, hiru gairen inguruan: berrikuntza soziala landa-eremuetarako aukera gisa, berrikuntza sozial gaztea eta landakoa eta ekintzailtza soziala eta hirugarren lekuak.

Programa honen helburuak hauek dira:

- Berrikuntza sozialaren *oinarriak ezagutaraztea*, landa-ingurunerako aukera gisa, aurre egin behar dien erronkei irtenbideak bilatzeko.
- Euskadin landa-garapenean lan egiten duten talde teknikoak *trebatzen laguntzea*, berrikuntza sozialeko ekintzak plan eta programetan sartzeko.
- Tokiko *erakundeetako korporazioak sentsibilizatzea*, berrikuntza sozialaren balioak lurraldeentzako aukera gisa txertatzeko.
- *Berrikuntza eta ideia berrien sorrera sustatzea* identifikatutako erronkei irtenbideak bilatzeko orduan.

1. SAIOA:
BERRIKUNTZA SOZIALA LANDA-EREMUETARAKO AUKERA GISA



Saio honen helburua berrikuntza sozialaren oinarriak ezagutaraztea izan da, baita berrikuntza sozialaren premisen pean lan egiteak ekar dezakeena ere. Helburua da, halaber, berrikuntza sozialaren lan-filosofiaren pean dagoeneko jarduerak egiten ari diren toki-erakundeetako ordezkariak ahalduntzea.



2. SAIOA:
BERRIKUNTZA SOZIAL GAZTEA ETA LANDAKOA



Bigarren saio honen helburua izan da gazteen inplikazioa eta konpromisoa bilatzeko tresnak eta beste egiteko modu batzuk erakustea eta landa-eremuetan bizitzeko eta lan egiteko gune erakargarriak sortzea, jakitun izanik landa-eremuko toki-erakundeek beren eragin-eremuetan ekintzak bultzatzeko eta bultzatzeko izan dezaketen eginkizunaz.



3. SAIOA: EKINTZAILTZA SOZIALA ETA HIRUGARREN LEKUAK



Hirugarren saio honen helburua izan da komunitateen inplikazioa eta konpromisoa bilatzeko tresnak identifikatzea eta landa-eremuetan bizitzeko eta lan egiteko gune erakargarriak sortzea.

Jardunaldi horiei esker, Euskadi, Badajoz, Kantabria, Burgos, Eskozia eta Frantziako landa-eremuetan garatutako berrikuntza sozialeko adibideak ezagutarazi ahal izan dira, protagonisten eskutik.

Hiru saio horietan 113 pertsonak hartu dute parte, udaletako eta administrazio-batzarretako ordezkarien artean, bai eta LGEetako, HAZIko eta Mendinet Tokiko Ekintza Taldeko teknikarien artean ere.

Berlaratuek egindako balorazioa oso positiboa izan da, eta aurkeztutako proiektuak eta egindako erakusketak oso interesgarritzat jo dira. Protagonistek bertatik bertara bizitako proiektuak eta esperientziak ezagutzea oso aberasgarria izan da.



PROIEKTU PILOTUAREN IKASKUNTZA NAGUSIAK

2019-2022 aldian, "LABEAN: BERRIKUNTZA SOZIALA SORTZEN LANDA INGURUNEAN" proiektu pilotua landa-biztanleria inplikatzeko saiatu da abangoardiako lan-tresnak erabiliz ekimenak eta pertsonak eragin, lagundu, dinamizatu eta konektatzeko, sareko lan-eredu berri bat eraikitzen lagunduz.

Proiektuak Euskadiko landa-eremu ahulenak hartu ditu: Añana, Arabako Mendialdea eta Enkarterri eskualdeak, eta lurraldeko eragile pribatu eta publiko ugari inplikatuta, abian jarritako ekintzetan parte hartu dutenak. Ibilbide horren amaieran, eta proiektu pilotua dela kontuan hartuta, ikaskuntza nagusiak jasotzen dira, beste lurralde batzuei etorkizunean antzeko prozesuei ekitea errazteko.

Testuinguru horretan, eta balorazio-prozesu baten ondoren, emaitzak maximizatzeko kontuan hartu beharreko funtsezko alderdi hauek nabarmendu dira, kasu bakoitzean eskuragarri dauden baliabideak baliatuta:

- *Berrikuntza soziala kontzeptua ondo sozializatzea prozesuaren hasieratik, tokiko erronketatik hurbil dauden adibideekin eta beste erkidego batzuetan abian jarritako jardunbide egokiekkin.*
- *Berrikuntza soziala jada identifikatutako erronka eta/edo prozesuetan aplikatzea, pertsonen interes eta parte-hartze handiagoa lortzeko.*
- *Erakunde publikoak (gobernu-organoak barne) hasieratik inplikatzea, bai eta pribatuak eta herritarrak ere, oro har.*
- *Epe ertain eta luzerako helburuak planifikatzea eta epe laburrean egin daitezkeen ekintza errazak biltzen dituzten estrategiak diseinatzea. Emaitzak ez dira berehalakoak izaten; beraz, garrantzitsua da hasieratik gogoeta eta ekintzarako orientazioa uztartzea.*
- *Ekimen errealistak babestea, nolabaiteko frustrazioa eragin dezaketen helburu ez-lorgarriak saihestuz.*

- *Horrelako prozesuetan adituak diren pertsonak lagun izatea, emaitza ezin hobekak lortzeko, eta parte hartzeko gonbidapena ekarpenak egin ditzaketan/egin nahi dituzten eragile zehatzei helaraztea.*
- *Prozesuak abiarazi aurretik komunitatean pertsona aliatuen taldeak sortzea.*
- *Hasiera batean, oinarrizko gobernantza bat ezartzea, eragile koordinatzaile gisa, edozein prozesutan lider izan dadin. Horrek denboraren eta baliabideen iraunkortasuna bermatzen du, parte hartzeari eusteko orduan.*
- *Parte-hartzaile bakoitzaren rolak argitzea eta borondatezko lankidetzarako pizgarriak eta sariak bilatzea.*
- *Prozesuei beren helburuaren eta izaeraren arabera ekarpena egin diezaieketen funtsezko eragileak behar bezala identifikatzea. Alderdi hori funtsezkoa da parte-hartzaileen interesa prozesu osoan mantentzeko. Sareak osatu eta hazi ahala sortzen diren kontaktu guztiak aprobetxatu behar dira.*
- *Komunikazioan berritzea (IKTak), eragile guztiengana modu eta denbora egokian iristeko, etengabeko konexioa mantenduz eta, aldi berean, kanpoko erreferentziak lortzea, tokiko komunitatea ahalduntzeko. Komunikazioak jarraitua izan behar du, eta komunitate sentimendua sortu behar du itzulketen eta bestelako informazioen bidez.*
- *Garrantzitsua da planteatutako ekintzen jarraipena egitea eta balorazio bateratuak egitea.*



INFORMAZIO GEHIAGO

<https://www.euskadi.eus/labean-landa-eremuan-berrikuntza-soziala-pizten/web01-a3labean/eu/>

KONTAKTUAK:

HAZI || www.hazi.eus

ADR Añana || info@adranana.org

ADR Enkarterri || enkarterrialde@enkarterrialde.eus

ADR Izki || cristina@izki.org

